



HABE

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2022ko abenduaren 12ko bilera-akta.

HABEREN ZUZENDARITZA BATZORDEA

BILERA-AKTA.

AURKIBIDEA

Gaia

Orri zenbakia

.- BERTARATUTAKOEN ZERRENDA	2-3
.- AZTERGAIK	4
.- 2020-12-18KO BILERA-AKTA ONARTZEA	5
.- 2022RAKO HABE-REN AURREKONTUA ETA MEMORIAREN AURKEZPENA.	5
.- 2022KO HABE-REN AURREKONTU-PROIEKTUA: SARRERAK ETA GASTUAK	5-6
.- HABE-REN 2022 ETA 2023 URTEETAKO MEMORIAK.....	6 -8
..- GALDE-ERREGUAK	9- 10



HABE

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2022ko abenduaren 12ko bilera-akta.

HABE-REN ZUZENDARITZA BATZORDEA

BILERA-AKTA

Eguna: 2022/12/12

Hasiera-ordua: 12:00

Bukaera-ordua: 13:15

BERTARATUAK

BATZORDEBURUA:

Bingen Zupiria Gorostidi jn., Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua

BATZORDEKIDEAK:

- Miren Dobaran Urrutia andrea, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuordea.
- Joseba Lozano Santos jauna, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria.
- Jokin Azkue Arrastoa jauna, HABEren zuzendari nagusia eta Zuzendaritza Batzordearen idazkaria.
- Juan Carlos Murillo Belaustegui jauna, HABEko Hizkuntzaren Didaktikako zerbitzuko ordezkaria, Lurdes Isartek utzitako lekua betez.
- Alex Labaien, udal euskaltegi guztien izenean, Joseba Urrizen ordezkaria.
- Garbiñe Mendizabal, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari nagusia.
- Estibaliz Alkorta Barragan andrea, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria.
- Lexuri Ugarte Aretxaga andrea., Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria eta Arabako Foru Aldundiko ordezkaria, Arabako Diputatu Nagusi Ramiro Gonzalez eskuordetuz.

IDAZKARIA: Itziar Azurza-Sorrondegui andrea, HABEko Aholkularitza juridikoko eta pertsonaleko Arloburua, HABEko zuzendari nagusiaren idazkari lanetan arituko da.



HABE

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2022ko abenduaren 12ko bilera-akta.

BERTARATU EZINA ADIERAZI DUTENAK

- Xabier Arauzo Uriarte jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Saileko ordezkaria, Lore Bilbao eskuordetuz.
- Joseba Urriz Goikoetxea jauna, Araba eta Bizkaiko udal-euskaltegietako irakasleen ordezkaria. Ez da etorri, baina bere ordezkari: Alex Labaien, udal euskaltegi guztien izenean.
- Garbiñe Doval García andrea, HAEE-IVAPeko Euskara zuzendariordea.
- Sagrario Aleman andrea., Euskaltzaindiaren ordezkaria, Andres Iñigok utzitako lekua betez.
- Aritz Abaroa jauna, EUDELeke ordezkaria, Txomin Sagarzazuk utzitako lekua betez.



HABE

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2022ko abenduaren 12ko bilera-akta.

AZTERGAIAK

- 1.- 2021-12-17ko bilera-akta onartzea.
- 2.- 2023rako HABEren aurrekontua eta memoriaren aurkezpena:
 - 2.1.- 2023ko HABEren aurrekontu-proiektua: sarrerak eta gastuak.
 - 2.2.- HABEren 2022-2023ko memoria eta 2023ko programaren memoria.
- 3.- Euskaltegien jarduera zenbakitan.
- 4.- Galde-erreguak.

Gai-ordenako gaiet heldu aurretik, Bingen Zupiria Sailburu jaunak bilera grabatzeko baimena eskatu die bertaratuei, eta inork eragozpenik adierazi ez duenez, horrela egingo dute. Horrez gain, batzordearen osaketan izandako aldaketen berri eman eta batzordekide berriak aurkeztu ditu, aktan jasota gera dadin eta elkarren ezagutza izan dezaten.

HABE

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2022ko abenduaren 12ko bilera-akta.

ESANAK ETA ERABAKIAK

1.- 2021-12-17KO BILERA-AKTA ONARTZEA

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu eta batzordeburu den Bingen Zupiria Gorostidi jaunak eman dio hasiera bilerari, eta ezer baino lehen, aurreko bilera-akta onartzea proposatu du eta, hura aldatzeko edo zuzentzeko bi proposamen egin dira:

1. 7.orrialdeko 8. Lerroan: Alex Labaienek adierazi du udal euskaltegietako gerenteak prest daudela lan horretan laguntzeko. Zehaztasunagatik, “gerentea” jartzen duen tokian, “Gerentea + irakasle-zuzendariak + zuzendariak” jartzea proposatu da.
2. Pixka bat aurrerago “Moduluko” jartzen duen tokian, “talde-orduko”.

Zuzenketa horiek eginda, akta onartutzat eman dute.

2.- 2023KO HABE-REN AURREKONTUA ETA MEMORIAREN AURKEZPENA

2.1.- 2023KO HABE-REN AURREKONTU-PROIEKTUA: SARRERAK ETA GASTUAK

HABEren zuzendari nagusi den Jokin Azkue jaunak hartu du hitza.

- **SARRERAK.** Aipu nabarmenenak honako hauek dira:
 - Azterketa-eskubideak delako horretan jaitsiera izan da: iaz 29.000 ikaslek parte hartu zuten, eta aurten espero da 25.000 inguru ikasle izatea. Beraz, jaitsi egiten dira sarrerak.
 - HPSren ekarpena igo egiten da, aurreko urtekoa baino 3.000.000 € gehiago baita.
 - Inbertsioetarako dirulaguntza aurten 710.000 €koa izango da HPSk emanda, eta hori INGURArako baliatuko da, autoikaskuntza-programarako. Hor baitago urte anitzeko konpromisoa hartua.
- **GASTUAK.** EJIekoekin dugun enkargua (asistentzia informatikoa) 405.000 € da, aurreko urteetan baino ia 200.000€ gehiago jarri ditugu, hain zuzen ere, bi informatikari hartzeko horretarako. Informatikari bat INGURArako izango da, eta beste bat jardungo da azterketen inguruan teknologiaren garapenean aurrera

HABE

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2022ko abenduaren 12ko bilera-akta.

egiteko. Hori da aldaketa nabarmenena, bi informatikari horiena eta enkargua handitu egiten dela.

Gero, bestalde, aipatu behar da funtzionarioen euskalduntze horretan hitzarmeneko ikasleen matrikulak % 10 behetik gaudela iazkoarekin alderatuta.

Ondoren, hirugarren orrialdean, euskaltegiari ematen zaizkien dirulaguntzak daude:

- Alde batetik, udal euskaltegien dirulaguntzak igoko dira, % 3ko soldata-igoera dago aurreikusita. Egondako desdoitzeak hurrengo urteetan orekatuko dira.
- Bestetik, euskaltegi pribatuen dirulaguntzei dagokienez, hiru ikasturteko finantzazioa egongo da, urte anitzeko kreditu-konpromisoaren bitartez.

Ikasleentzako dirulaguntzei dagokienez, 3.775.500 €koa izango da. B2 arteko ikasleei doakotasuna bermatuko zaie, eta 16-30 urte bitartekoei C1 mailara arte. Berritasunetako bat, hain zuzen ere, 16-18 urtera artekoentzako C1 mailako ikastaroak egiteko izango da. Guztira horretarako 750.000€koa izango da, baina 2023ko urria-abendua artekoa 435.000 €koa.

Azkenik aipatuko dugu inbertsioetarako emandako 710.000€ horiek. Esandakoa, hor dago INGURArako urte anitzeko kreditu-konpromisoa. Bestalde, aurreko urtean euskaltegi pribatuei diruz laguntzeko lerro bat ireki genuen, inbertsioetarako dirulaguntza-lerro bat, teknologia azpiegituretan, eta bereziki, arbel teknologietan inbertitzeko. Hurrengo urterako aurreikusi dugu udal euskaltegiarentzako. Proporzio berean jarri dugu 170.000€.

Horiek izango lirateke berritasun handienak lituzketen partidak gastuetan.

Alex Labaienek honako galdera hau botatzen du: Udal euskaltegiarentzako 11.400.000€ al dira, iaz baino gutxiago?

Jokin Azkue jaunak erantzuten dio ezetz, 12.739.000€ dela guztira, ez dela jaitsi. Konpromisoa da soldaten igoera dirulaguntza-moduluetan jasotzea, hori da adostuta dagoena.

2.2.- HABE-REN 2022-2023KO MEMORIA ETA 2023KO PROGRAMAREN MEMORIA.

Programaren deskribapenean datza memoria (2022an zer egin dugun eta 2023an zer egingo dugun). Jarraian, berritasunak aipatuko dira soilik.

1) MATERIALGINTZA: Autoikaskuntza-sistema berri bat dago, INGURA izenekoa, eta bi osagai nagusi ditu:



HABE

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2022ko abenduaren 12ko bilera-akta.

a) Plataforma teknologikoa: Moodle erabiliko da. Gaur egun, BOGA Moodle bidez dabil, eta Moodle bidez erabiltzeko funtzionalitate batzuk prestatzen ari gara. Espero dugu 2023ko urtarrilaren amaierarako, eta euskaltegiei aurkeztuko zaie. Plataformak lotura behar du HABEren aplikazioekin.

b) Edukia (osagai didaktikoak): ikus-entzunezkoak. Oinarria izango da A1 eta A2, eta egoera bideoak prestatzen ari gara. Gidoiak eginak daude, eta gidoi horien baitan egoera horien bideoak ekoizten gabiltza. Bideo horientzako ariketa digitalak ere egin behar dira, eta esleipen-prozesua abiatu da. AURTEN BAI fundazioari esleitu zaio egiteko hori. Bestalde, beste bideo-mota batzuk ere egongo dira, azalpen-bideoak. Hauek aparteko produktuak dira. Horiek A1 eta A2rako 2023ko amaieran prest izatea espero dugu. Tutoretza gauzatzeko euskaltegietara jo beharko du ikasleak eta hori oraindik lantzen ari gara. Horretarako, 710.000€ko aurrekontua dago 2023rako.

2) PRIMERAN. C1eko jardun biko lehen liburuxka bideratuko da 2023 urtean.

3) IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA.

a) ONLINE formatuak arrakasta izan du, eta hurrengo urteetarako indartuko da.

b) EEMBaren Liburu osagarria egin eta zabaldu da euskaltegietara.

c) HABEren liburutegia gizarteratu nahi da. Komunikazio-plan bat ageri da, sare sozialetan ere zabaltzeko eta bisita gidatuak antolatu dira.

4) BERDINTASUN-PLANA. Bi aipamen. 2021-2024rako HABEren bigarren berdintasun-plan bat egin da.

1.- Ikasmaterialak egitean generoari ematen zaion trataera.

2.- Azterketa-ereduak egiteko protokolo bat prestatu da.

5) EUSKALTEGI PRIBATUEN DIRULAGUNTZAK. Asmoa da irakasleen lan-baldintzak udal euskaltegiekin parekatzea, klase-ordu eta soldata maileri dagokienez. Beti ere, euskaltegiekin adostuta. Urtez urte % 7 igoko da euskaltegiei dirulaguntza, eta hurrengo urteko zenbatekoa 2.000.000 €koa izango da.



HABE

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2022ko abenduaren 12ko bilera-akta.

HABEren giza baliabideei dagokienez, kudeaketa-arloan administrazioan pertsona-aldaketek zaildu egiten dute jakintza partekatzea. Hanka-sartzeak egon dira, bai dirulaguntzen arloan, bai egiaztatzegintzan, azterketaldietan, baina bideratu dira.

Udal euskaltegien kasuan, kudeaketa-akatsak zuzenduko dira 2022ko abenduaren 20rako. Juan Carlos Murillok eman ditu azalpenak (kitapen-ebazpena zuzenduko da).

Horretaz gain, Jokin Azkuek dirulaguntzen lerro berri bat irekiko dela azaldu du: 16-18 urte artekoentzat C1 ikastaroak burutzeko dirulaguntzak 2023-2024an.

6) IKASLEEN DIRULAGUNTZA DEIALDIA. 16-18 urtekoentzat C1 mailako ikastaroak egiteko beka-sistema bat, erabilera areagotzeko eta unibertsitatera joan aurretik maila sendotzeko. Asmoa da ia doakoa ateratzea, eta harrobi nagusia ikastetxeetan dago, eta hori, nagusiki, ikastetxeen bidez egingo da. Bestalde, ikasleei zuzendutako dirulaguntza-deialdia uztailean aurreratzea izango da erronka, irailerako utzi beharrean.

Garbiñe Mendizabalek dio interesgarri litzatekeela udaletako euskara-teknikariak jakitun egotea.

7) EGIAZTATZEGINTZA. Azterketa-ereduak prestatzea eta garaiz egitea zaila da. Hori indartu egin beharko dugu, eta kanpotik egin beharko da.

Alex Labaienek galdera egin du: zein da teknologia-tresnen funtzioa? Jokinek erantzun du arbel digitalak eta 3 ordenagailu dela edukiz. Horren guztiorren aurkezpena egingo dela esan du Jokinek.

8.- EUSKALTEGIEN JARDUERA ZENBAKITAN

Jokin Azkuek taula azaldu du, eta ikasle-kopuruaren jaitsiera egon dela adierazi. Talde-orduak jaitsi dira, besteak beste, ikastaroen iraupena jaitsi egin delako (ikastaroen trinkotasuna gutxitu egin da). Jaitsiera lurraldeka, bereziki, Bizkaian eta Bilbon dago.



HABE

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2022ko abenduaren 12ko bilera-akta.

9.- GALDE-ERREGUAK

Hainbat gai jorratu direnez, gida gisa hizketagai nagusienak azpimarratu dira.

- 1) **Alex Labaien jaunak, udal euskaltegiko ordezkariak esan du enplegu publikoaren egonkortzearekin jende gehiago etortzea espero zuela.** Toki askotan matrikulatze-garaia ia urrira arte atzeratu egin dela. Bergaran duela bizpahiru urte oso matrikulakopuru handia etorri zen. AMIAn nabaritu du euskaltegi txikien ikuspegi-falta. Falta da euskaldun zaharren alfabetatzea. Jubilatuek ingelesa ikasi nahi dute, baina ez dute euskaraz alfabetatu nahi.
Beste ohartxo bat ere egiten du: betikoa. Autoikaskuntzaren finantzazioa zenbatean merezi duen. Alkateak galdetzen zuen ea merezi ote duen, ikustea zein finantzazio duen HABEtik. Taldekatzeak ez dira errazak, eta ekonomikoki positiboak izatea ere ez. Finantzazio-sistema ez da inondik ere egokia.

Jokinek erantzuten dio erabilitako metodologiak baldintzatzen duela. *BY&BAIk bere sistema propioa erabiltzen du, eta Mondragon Lingua eta euskaltegiek, kasu askotan, BOGA erabiltzen dute, horiek guztiak sistema itxiak dira.* Beste muturrean, banan-banakako metodologia dago. Kontua da bilatu behar dela tarteko sistema bat, ez klase partikular ez talde handi. Hori INGURArekin egin beharko da. Euskaltegi batzuetan mintza-saioak banan-banan egiten dira, eta hori erakunde publiko batek ezin du finantzatu.

Alex Labaienek dio banakako mintza-saioak ematen direla jakin badakien arren, ez du uste gehien zabaldua den metodologia denik. Banakako zerbitzu hori eskaintzea agian gehiegi izan daiteke. Irakaslearen beharra dagoen arren, ikasleek ariketak egiten ez badituzte, horrek asko baldintzatzen du. Beraientzat ez da sistema egokia.

- 2) **Irakasleen lan-poltsei dagokienez, IVAPekoek zergatik ez dituzten lan-poltsak egiten galdetu du berriro ere Alex Labaienek, zergatik ez Hezkuntzak?**

Aztertu dela baina ez dagokiola IVAPi. Bere ustez, gakoa hor dago. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzan ez dago euskara-irakaslerik, eta horregatik ezin du IVAPek lan-poltsarik osatu.

Euskaltegien arazoa estabilitatea da lan-baldintzetan, eta Miren Dobaranek dio ordutegia dela txarrena.



HABE

HABEren Zuzendaritza Batzordea. 2022ko abenduaren 12ko bilera-akta.

Agian EUDElen bitartez hitzarmen bat egin daitekeela esan du Miren Dobaranek. Udalen esku daude euskaltegiak, eta beraz, hori izan daiteke bidea. Eudel-en bitartez, eta kudeaketa HABEk egin. Beste puntu bat karrera profesionalean konta dezala euskaltegietako lan-esperientziak, eta hori Hezkuntzarekin hitz egin da.

Jokin Azkuek esan du lan-poltsak Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzea planteatu zela jadanik, eta Hezkuntzatik ez dela erantzunik jaso.

Besterik ez dagoenez, bertaratutakoak agurtu eta etortzeagatik eskerrak eman ondoren, batzordeburuak bukatutzat eman du bilera.

Gasteizen, 2022ko abenduaren 12an.

Izenpetua: Batzordeko Idazkaritza.

Jokin Azkue Arrastoa, HABEren zuzendari nagusia.

Itziar Azurza Sorrondegui,

HABEko aholkularitza juridiko eta pertsonaleko Arlo burua.